# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia | Iruña, 2024ko ekainaren 21a | 89. ZK.

## A U R K I B I D E A

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/MOC-00091. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita elkarrizketa-bide bat ezar dezan, alternatiba bat aurkitu dakion Kantauri-Mediterraneoa trenbide-korridorearen ibilbideari, Iruñetik euskal Y-aren loturaraino doan zatian. EH Bildu eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—11-24/PES-00303. Galdera, udan medikuen ordezkapenak egite aldera Osasun Departamentuak hartutako neurriei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (5. or.).

—11-24/PES-00304. Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (6. or.).

—11-24/PES-00305. Galdera, dantzaren Nafarroako irakaskuntza artistiko ofizialari buruzkoa. Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (6. or.).

—11-24/PES-00306. Galdera, "Nortasun digitalaren Wallet-a" proiektuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00307. Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2022ko Plan Operatiboko jarduketa-planei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00308. Galdera, Nafarroako Gobernuaren harrera-baliabideei eta adingabeen baliabideei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00309. Galdera, ekografietarako gogoan hartzen ari den konponbide robotizatuari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (9. or.).

—11-23/PES-00310. Galdera, 2023ko ekitaldian 100 milioi euro ordaintzea eskatu zaion enpresari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (9. or.).

—11-24/PES-00311. Galdera, iktusa artatzeko Nafarroako Planari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (11. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—PER20240011. Deialdia, Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda (12. or.).

**E saila:**
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# 11-24/MOC-00091. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita elkarrizketa-bide bat ezar dezan, alternatiba bat aurkitu dakion Kantauri-Mediterraneoa trenbide-korridorearen ibilbideari, Iruñetik euskal Y-aren loturaraino doan zatian

*EH BILDU ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea EH Bildu eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita elkarrizketa-bide bat ezar dezan, alternatiba bat aurkitu dakion Kantauri-Mediterraneoa trenbide-korridorearen ibilbideari, Iruñetik euskal Y-aren loturaraino doan zatian.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Lurralde Kohesiorako Batzordean albait lasterren eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2023ko abenduaren 13an lan-bilkura egin zuen Lurralde Kohesiorako Batzordeak; bertan, Salvemos Iza-Gulina Bizirik elkartearen ordezkariek, Juan Carlos Valerio arkitektoak eta Kimez Munitxa ingeniariak Abiadura Handiko Trenaren Iruña-Gasteiz tarteko egungo trazadura ofizialaren ordezko aukerei buruz informatu zuten.

Bi teknikari horien azterlanetan –abiapuntu ezberdinetatik egin badira ere– antzeko konponbideak proposatzen dira ibilbideko tarte gatazkatsuenei dagokienez.

Egungo trazaduraren zati handi bat erabiltzea planteatzen denez, bi proposamenek kostuak nabarmen merkatzea ahalbidetzen dute, baina, batez ere, Foru Komunitateko alderdi horretako paisaian eta lurraldean eragin txikiagoa izatea ahalbidetzen dute. Gainera, Juan Carlos Valerio arkitektoaren proposamenak aukera emango luke egungo proiektuan aurreikusitakoak baino are abiadura handiagoa lortzeko.

Nolanahi ere, azterlan horiek zorroztasunez eta oso teknikari fidagarriek egin arren, ez dute baztertzen beste aukera batzuk planteatzea.

Jakina da, bestalde, gai hori Estatuaren eskumenekoa dela. Baina lan-bilkura hartan azaldu zen bezala, badira udalerri batzuen aurrekariak (Valentzia edo Valladolid, adibidez), eragiten zieten trenbide-proiektuetan hobekuntzak planteatu zituztenak eta ministerioak onartu zituenak.

Azken batean, ahalik eta irtenbiderik onena bilatu beharko litzateke, obren sustatzailea –Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioa–, Nafarroako Gobernua eta ukitutako udalak ados egonen direna.

Kontuan izan behar da, halaber, egungo proiektuaren trazadurak errezeloak sortu dituela ibilbide osoko udalerrietan, Oltza Zendeatik Ziordira arte. Bestalde, ingurumenaren kontzientzia gero eta errotuago dago gizartean, eta horrek oso zail eginen du proiektua planteatu den moduan egin ahal izatea. Hortaz, denek onartu ahal izanen duten irtenbide bat bilatu beharko litzateke.

Lan-bilkura hartan parte hartu zuten taldeek interesez jaso zituzten emandako azalpenak, eta zenbait taldek Legebiltzarrak arlo horretan zer egin zezakeen planteatu zuten, kontuan hartuta gaur egun dagoen eta adierazi den eskumen-egoera.

Halatan, proposamena egin duen elkarteak Batzorde horretan ordezkaritza duten taldeekin izandako bileren ondoren, behean sinatzen duten talde parlamentarioek honako mozio hau aurkeztu dute, Lurralde Kohesiorako Batzordean eztabaidatu eta onets dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du elkarrizketa bide bat ezar dezan Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioaren bidez, proposamen alternatibo bat lortzeko Kantauri-Mediterraneoa trenbide-korridorearen informazio-azterlanetan egun proposatzen den trazadurarako, Iruñetik euskal Y-aren loturaraino doan zatian, ahal den neurrian erabilita lehendik dagoen plataforma eta adituek planteatu dituzten ekarpen teknikoak kontuan hartuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berak ere parte har dezan elkarrizketa-prozesu horretan, trazadura alternatibo bat bilatzeko aipatu tartean, eta aintzat har ditzan ukitutako udalek eta proiektuari alternatibak aurkeztu dizkioten adituek egin ditzaketen iradokizunak.

Iruñean, 2024ko ekainaren 11n

Foru parlamentariak: Adolfo Araiz Flamarique eta Daniel López Córdoba

**F saila:**
**GALDERAK**

# 11-24/PES-00303. Galdera, udan medikuen ordezkapenak egite aldera Osasun Departamentuak hartutako neurriei buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, udan medikuen ordezkapenak egite aldera Osasun Departamentuak hartutako neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko ditu Osasun Departamentuak Nafarroako medikuen oporrak estaltzeko lehen mailako osasun-arretan eta arreta espezializatuan (ospitaleak eta kontsultak)?

Iruñean, 2024ko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-24/PES-00304. Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboari buruzkoa

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Noiz onetsiko du Nafarroako Gobernuak Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboa?

2. Nafarroako Gobernuak noizko uste du beteko duela Parlamentuko Erregelamenduaren 227.1 artikuluan ezarritakoa, eta noiz igorriko du plan hori, Parlamentuak bere iritzia eman dezan, eskatu den moduan?

Iruñean, 2024ko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## 11-24/PES-00305. Galdera, dantzaren Nafarroako irakaskuntza artistiko ofizialari buruzkoa

*ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, dantzaren Nafarroako irakaskuntza artistiko ofizialari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

2021/2022 ikasturtetik aurrera, LOMLOE onetsi zenean, Dantzako goi-mailako tituluari buruzko aldaketak sartu ziren indarrean (kasuko espezialitatearekin). Halatan, "dantza-ikasketak gainditu dituztenek Dantzako Goi-mailako Arte Ikasketetako Graduko titulazioa lortuko dute (kasuko espezialitatean), zeina, graduko unibertsitate-titulazioaren baliokidea izanen baita ondorio guztietarako. Aplikatu beharreko araudiak unibertsitateko gradu-titulua edukitzea eskatzen badu, Dantzako Goi-mailako Arte Ikasketetako Graduko titulazioa duenak baldintza hori betetzen duela ulertuko da".

Bestalde, joan den maiatzaren 22an, Diputatuen Kongresuak behin betikoz onetsi zuen Arte Ikasketen Legea, ikasketa horiek lehen aldiz arautzen dituena. Lege horrek Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko goi-mailako arte ikasketak homologatzen ditu, eta unibertsitate-ikasketekin parekatu; arte ikasketa profesionalak, berriz, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalarekin homologatzen ditu, hau da, Lanbide Heziketako sistema berriarekin, eta, era berean, konpetentzia horiek aitortzeko eta egiaztatzeko aukera ematen die sektoreko langileei.

Nafarroan, ordea, ez dugu dantzako goi-mailako prestakuntza artistikoa gaitzen duen ikastetxerik, ez eta prestakuntza ofizialak gaitu ditzakeen dantzako prestakuntza-zentrorik ere.

Departamentuak ba al du asmorik Nafarroan dantzako prestakuntza ofizialak sartzeko eta gure erkidegoan dantzako goi-mailako prestakuntza artistikoa gaitzeko?

Iruñean, 2024ko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

---

## 11-24/PES-00306. Galdera, "Nortasun digitalaren Wallet-a" proiektuari buruzkoa

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, "Nortasun digitalaren Wallet-a" proiektuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Zertan da "Identitate digitalaren Wallet-a" proiektua?

2. Zein da proiektu horretarako kalkulatutako aurrekontua eta zein gastu-partidatan kokatuko da?

3. Zer epe darabil gogoan Nafarroako Gobernuak proiektua Foru Komunitateko Administrazioan abian jartzeko?

4. Nafarroako Gobernuak non aurreikusten du hori eskuragarri jartzea?

Iruñean, 2024ko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

---

## 11-24/PES-00307. Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2022ko Plan Operatiboko jarduketa-planei buruzkoa

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2022ko Plan Operatiboko jarduketa-planei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2022ko Plan Operatiboko zer jarduketa-plan bete dira Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2023ko Plan Operatiboko 48.1 neurriaren arabera?

2. Zeintzuk gelditu dira bete gabe?

3. Zein izan da batzuk eta besteak hautatzeko arrazoia?

Iruñean, 2024ko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## 11-24/PES-00308. Galdera, Nafarroako Gobernuaren harrera-baliabideei eta adingabeen baliabideei buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren harrera-baliabideei eta adingabeen baliabideei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak zer harrera-baliabide eta adingabeen baliabide ditu? Zehaztu Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari zer egoitza-baliabide dauden atxikirik, baliabide mota, ahalmena eta egungo okupazioa.

Iruñean, 2024ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-24/PES-00309. Galdera, ekografietarako gogoan hartzen ari den konponbide robotizatuari buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, ekografietarako gogoan hartzen ari den konponbide robotizatuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zertan datza Osasun Departamentua Tuterako Reina Sofía ospitalean ekografiak egiteko gogoan hartzen ari den konponbide robotizatua?

Iruñean, 2024ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

---

## 11-23/PES-00310. Galdera, 2023ko ekitaldian 100 milioi euro ordaintzea eskatu zaion enpresari buruzkoa

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, 2023ko ekitaldian 100 milioi euro ordaintzea eskatu zaion enpresari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren kontra borrokatzeko Batzordearen azken saioan, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko arduradunek informatu zuten 2023ko zerga-kudeaketako lanen ondorioz enpresa handi bati BEZaren aitorpena dela-eta ordaindu gabeko 100 milioi euro erreklamatu zitzaizkiola.

Auzitegi Gorenak 2021eko otsailaren 24ko 257 zenbakiko epaian deklaratu du (2162/2020 kasazio-errekurtsoa) Tributuei buruzko abenduaren

17ko 58/2003 Lege Orokorraren 95. artikuluak, zeinean datu fiskalen erreserba edo konfidentzialtasuna aurreikusten baita, ez duela eragozten informazio publikorako sarbidea tributu-arloan (foru-araudian, Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 105. artikulua izanen litzateke horren baliokidea); izan ere, Tributuei buruzko Lege Orokorrak ez du jasotzen informaziorako sarbiderako araubide oso eta autonomo bat, baizik eta tributu-datu garrantzitsuen erreserbarako printzipio edo arau orokor bat, herritarren intimitaterako oinarrizko eskubidearen berme gisa (Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua).

Epai horretan, Auzitegi Gorenak honako hau dio:

"Ordenamendu juridikoaren osotasunean eta Gardentasunari buruzko 19/2013 Legeko berme berrien argitan interpretatu behar da Tributuei buruzko Lege Orokorra; hortaz, horren erregulazioak ez du ez baztertzen ez aurreikusten Tributu Administrazioari informazioa eskatu ahal izatea tributu-edukiko elementu jakin batzuei buruz, Gardentasunari buruzko Legearen lehenbiziko xedapen gehigarria baita aplikatu beharrekoa baldin eta informazioak ez badu talka egiten partikularren intimitaterako eskubidearekin –Tributuei buruzko Lege Orokorraren 34. artikuluak berak partikularrei aitortzen die sarbidea mugatzeko eskubidea–, edo Administrazioak dauzkan datuak beharrezkoak izan daitezkeenean herritarrek beren eskubideak baliarazi ahal izan ditzaten, edo jarduketa publikoaz informatuta egon daitezen. Informazio hori Gardentasunari buruzko Legearen 14. artikuluan ezartzen diren mugei egokitu behar zaie, bai eta 15. artikuluan ezarritako datuen babesari ere (...)".

Bestela esanda, Tributuei buruzko Lege Organikoak ez du ez ordezkatzen ez aplikaezin bihurtzen Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezartzen den informazio publikorako sarbidearen araubidea.

Auzitegi Gorenaren epai horrek oso gai eztabaidagarria argitzen du. Tributuei buruzko Lege Organikoaren 95. artikuluan ezartzen den datu fiskalen erreserbak edo konfidentzialtasunak ez du eragozten Gardentasunari buruzko 19/2013 Legea aplikatzea, ez eta, hortaz, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea ere. Zergadunek tributu-administrazioari ematen dizkioten datuen babesa babestu egin behar da, baldin eta haien intimitateari eragiten badiote.

Beraz, Departamentuak arlo horretan izandako jokabidea gorabehera, ez dago inolako eragozpenik herritarren intimitateari eragiten ez dion tributu-informazioa emateko; esate baterako, eta besteak beste, honako kasu hauetan:

a) Administrazio publikoaren tributu-jarduerari buruzko datuak.

b) Egiaztapen, ikuskapen, likidazio eta bilketako tributu-jarduketa eta -prozedurei buruzko informazio orokorra.

c) Egindako eginbideak eta agerraldiak, lortutako baimen judizialak, likidazioak, premiamendu-probidentziak eta igorritako enbargo-eginbideak.

d) Jasotako eta izapidetutako salaketei buruzko informazio orokorra; emandako salbuespenak, hobariak edo zerga-pizgarriak; kreditu kobraezinen aitorpena; hasitako zehapen-prozedurak eta ezarritako zehapenak; jasotako, baietsitako eta ezetsitako errekurtsoak eta erreklamazioak; iraungitako prozedurak; preskribatutako arau-hausteak eta zehapenak, eta abar.

e) Ogasun Publikoarekiko zordunen zerrenda (izen-abizenak, sozietatearen izena, IFZ), ordaintzeke dauden zerga-zor eta -zehapenen zenbateko osoa 100.000 eurokoa denean.

Garrantzitsua da gogoratzea ezen, gastu publikoei eusten laguntzeko zergak ordaintzeko konstituzio-betebeharra daukagunez pertsona guztiok, bidezkoa dela informazioa lortzea Administrazioak zergen kudeaketan egiten duen jarduerari buruz.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1. BEZaren tributu-kudeaketako lanetan 2023ko ekitaldian ordaindu gabeko 100 milioi euro ordain ditzan eskatu zaion enpresaren izena zein da?

2. Zein da 2023an egindako ikuskapen-lanen arabera delitu fiskala egin bide dituzten eta Fiskaltzaren edo justizia-auzitegien aitzinean salatutako pertsona fisiko edo juridikoen identifikazioa?

Iruñean, 2024ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

# 11-24/PES-00311. Galdera, iktusa artatzeko Nafarroako Planari buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, iktusa artatzeko Nafarroako Planari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zertan da Nafarroan iktusaren arretari ekiteko plan estrategikoaren taxuketa edo ezarpena (baldin eta jada taxututa badago)?

Iruñean, 2024ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

# PER20240011. Deialdia, Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa

## Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda

69/2024 Ebazpena, ekainaren 18koa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez onesten baita aipatu prozeduran onartuak nahiz baztertuak izan diren izangaien behin-behineko zerrenda.

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren 5. oinarrian ezarritakoaren arabera –deialdia 2024ko apirilaren 23ko 83. NAOn argitaratu zen–, honako hau EBATZI DUT:

**1.** Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda hauek onestea:

**A) TXANDA LIBREA**

**A.1) ONARTUTAKOAK (TXANDA LIBREA):**

| Izen-abizenak | Euskarako B2 eskakizuna duen lanposturako aurkezten da | Oharrak |
|---|---|---|
| Abaigar Millán, Jaione | | |
| Abal Fernández, Alberto | | |
| Abaroa Gezuraga, Nekane Itziar | BAI | |
| Abartzuza Mezkiritz, Xabier | BAI | |
| Afonso Quiñones, Carlos Manuel | | |
| Agorreta Lafuente, Blanca Esther | | |
| Agós Fernández, Mª Asunción | | |
| Aguado Gracia, Andrea | | |
| Aguirre Ocáriz, Isabel | | |
| Aguirrebalzategui Biurrun, Berta | | |
| Alcalde Unzu, Josu | | |
| Aldama Jorquera, Jorge | | |
| Aldareguía Iguelz, Juana María | | (1) |
| Alfaro Ozcáriz, Ángel | | |
| Almendros Juárez, María José | | |
| Alonso Moral, María | | |
| Alonso Sabanza, Estibaliz | | |
| Alonso Sario, Diana | | |
| Álvarez Aranaz, Rakel | BAI | |
| Álvarez Ilzarbe, Miguel | | |
| Alves Pinto, Hortensia | | |

| | | |
|---|---|---|
| Amatriain Arraiza, Iñigo | | |
| Amoztegui Bautista, Rubén | | |
| Ancizu Gorena, Álvaro | | |
| Andrés García, Jon | BAI | |
| Andrés Osinaga, Ainara | BAI | |
| Andueza Sola, Amaia | | |
| Ansorena Lasheras, Laida | | |
| Antón Itúrbide, Rubén | | |
| Aponte Aranguren, Amaya | | |
| Ardanaz Asiáin, María Gema | | |
| Ardanaz García, Elvira | | |
| Arenal López, Leticia Isabel | | |
| Areta Arrastia, Francisco Javier | | |
| Arizcuren Ustárroz, María Carmen | | |
| Aríztegui Aguerrebere, Alfonso | | |
| Armendáriz Murillo, Begoña | BAI | |
| Arrarás Andueza, María Concepción | | |
| Arrastia Ayerbe, Joaquín | | |
| Arrondo Larráyoz, Carmen | BAI | |
| Asio Goicoechea, Fabián David | | |
| Atxega Zalakain, Maite | BAI | |
| Ayala Gómez, Raquel | | |
| Ayape Galar, María Esther | | |
| Ayesa Andueza, Maider | BAI | |
| Ayesa Lázaro, Iván | BAI | |
| Azanza Ilzarbe, María Carmen | | |
| Azcona Legarra, Unai | BAI | |
| Azcune Echávarri, Aitor | BAI | |
| Azkune Etxabarri, Koldobika | BAI | |
| Baigorri Zubiri, Iñigo | BAI | |
| Balbuena Bruna, Claudia | | |
| Balseiro Santos, Carlos Alberto | | |
| Baquedano García, Olaia | | |
| Barón Díaz, Raúl | | |
| Bautista López, María Pilar | | |
| Baztán León, Imanol | | |
| Belloso López, Unai | | |
| Beloqui Fandos, Nerea | | (1) |
| Bengoechea Guelbenzu, Ana María | | |
| Bengoechea Lopetegui, Beñat | BAI | |
| Beorlegui Martincorena, María Jesús | | |
| Berrueta Martínez, María del Mar | | |
| Bert Landa, Eva María | | |
| Blanco Sisniega, Jonás | | |
| Bogusevschi Staver, Elena | | |
| Boj Santiago, Lara | BAI | |
| Borrego Yoldi, Joaquín | | |

| | | |
|---|---|---|
| Bueno Urrizelki, Mikel | BAI | |
| Burguete Aguirre, Amaia | | |
| Burguete Aguirre, Claudia | | |
| Burguete Echavarri, Miguel Javier | | |
| Busto Amezketa, Amaia | BAI | |
| Calvo Martínez, Ana Belén | | |
| Calvo Mutuberria, Haizea | BAI | |
| Calzada Badiola, Constantino | | |
| Cameirao Ojer, Diego | | |
| Cantisano Garat, María Eugenia | | |
| Cárdenas Isuiza, Charlly | | |
| Carmona González, Ricardo Patxi | | (1) |
| Carrera Murillo, Francisco Javier | | |
| Carretero Urdangarín, Maria Lourdes | | |
| Casado Erro, María | | |
| Casarejos Soto, Marta | | |
| Castillo Arteta, David | | |
| Cavia Naya, Gloria Alicia | | |
| Cervantes Aranaz, Nieves | | |
| Chocarro Irujo, Adur | BAI | |
| Cía Apesteguía, María Rosario | | |
| Cidoncha del Olmo, Elena | | |
| Concha Benavides, Vanessa Karen | | |
| Cormenzana Lumbreras, Francisco Javier | BAI | |
| Cornago Ciáurriz, María Pilar | | |
| Coronado González, Sonia | BAI | |
| Costa Sanz, Silvia | | |
| Cuartero Abad, María Isabel | | |
| Cuenca Suescun, María Yolanda | | |
| De Bilbao Yárnoz, Iaione | | |
| De Carlos Chamizo, Gorka | BAI | |
| De Esteban Iracheta, Eva | | |
| De las Heras Rojo, Leticia | | |
| De Miguel Caballero, Pedro | BAI | |
| De Miguel Valencia, María Cristina | | |
| Del Hoyo Martínez de Lagran, Rubén | BAI | |
| Delgado Miranda, Concepción | | |
| Delgado Rada, Raúl | BAI | |
| Delgado Romero, Laura | | |
| Díaz Arranz, Elena | | |
| Díez Martínez de Morentin, Mercedes | | |
| Domínguez Basterra, María Aránzazu | | |
| Domínguez Martínez, Diego | | |
| Dorremotzea Labiano, Miren Arantzazu | BAI | |
| Echalecu Castaño, David | | |

| | | |
|---|---|---|
| Echandi Yoldi, Amaya | | |
| Echarri Tapia, Josu | BAI | |
| Echauri Arana, José Javier | BAI | |
| Echeverría Armendáriz, Alberto | | |
| Echeverría Azcona, Alayn | BAI | |
| Echeverría Elizondo, Miren Josune | | |
| Echeverría Lazcano, Pablo | | |
| Echeverría Muruzábal, June | BAI | |
| Eguinoa Buzunariz, Miren Nekane | | |
| Ekisoain Torrecilla, Joseba | BAI | |
| Elcid Santamaría, Edurne | | |
| Elía Zudaire, Sergio | | |
| Elósegui Unzué, Eneko | | |
| Equisoain Díez, Ana Isabel | | |
| Esparza Barberena, María | | |
| Espelosín Azpilicueta, David | | |
| Esteban Baruque, Ekaitz | BAI | |
| Esteban Hernández, María Carmen | | |
| Esteban Nicolay, María Sara | | |
| Estebariz Arteta, Óscar | | |
| Estévez Hervás, Jonay | BAI | |
| Etchevers, Martine | | |
| Etxaide Aldatz, Ekhi | BAI | |
| Etxarte Zambrano, Alberto | BAI | |
| Etxeberriazarraga Otazua, Gotzon | BAI | |
| Fernández Garro, María Jesús | | |
| Fernández Redín, Izaskun | BAI | |
| Fernández Rodríguez Bobada, Ana M.ª | | |
| Fernández Sánchez, María Sira | | |
| Fernández Torres, Miguel | | |
| Fortún Pérez de Ciriza, José Ignacio | | |
| Fraile Iturralde, Jorge | BAI | |
| Freire Dueñas, María Fernanda | | |
| Fuentemilla Urío, Maitane | BAI | |
| Furtado Eraso, Esther | | |
| Gabari Ardanaz, Félix Juan | | |
| Gabari Doray, Iñigo | | |
| Gadañón Gárriz, María Elena | | |
| Galar Sarasa, María Teresa | | |
| Galera Torvisco, Diana | | |
| Gamio Echenique, Josefina | BAI | |
| Ganuza Zubillaga, M.ª Eugenia | | |
| Garate Bañez, Idoia | | |
| Garcés Barrero, Tomás | | |
| García Clemente, Héctor | | |
| García de Baquedano Sáez de Larramendi Amaya | | |

| | | |
|---|---|---|
| García Díaz, Iñaki | | |
| García El Busto, María | | |
| García Fernández, Lucía | | |
| García Legarda, Emilio José | BAI | |
| García Legarda, Jorge Luis | | |
| García Sola, Iñigo | | |
| García Unanua, Ana | | |
| Gastesi Arena, Aitor | | |
| Gaya Andueza, Edurne | BAI | |
| Gaztanbide Atxutegi, Olga Laura | BAI | |
| Gezugara Malaxetxebarria, Sara | BAI | |
| Gil Pérez-Nievas, Alberto | | |
| Giménez Pérez, Berta | | |
| Goikoetxea Esnaola, María José | | |
| Goldaracena Garbisu, Iñaki | BAI | |
| González Elizalde, Izaskun | | |
| González González, Jesús Manuel | | |
| González Jiménez, Ana Isabel | BAI | |
| González Martínez de Lecea, Ramiro | | |
| González Murillo, Juan Luis | | |
| Goñi Anaut, Gaizka | BAI | |
| Goñi Barber, Leire | | |
| Goñi Echauri, Xabier | | |
| Goñi Larraza, José Luis | | |
| Goñi Ros, Urtzi | BAI | |
| Gorraiz Guinea, Amaia | BAI | |
| Górriz Lizarbe, Inmaculada | | |
| Guruciaga Repáraz, María | BAI | |
| Hernández Esteban, José Javier | | |
| Hernández Guillén, Nuria | | |
| Herranz Aguirre, Miguel Ángel | BAI | |
| Herrera Alzu, María Candelaria | | |
| Horcada Iriarte, Iñigo | BAI | |
| Hualde Aztarain, Iñigo | | |
| Huarte Arregui, Miren Edurne | | |
| Huarte Lizarraga, María Elvira | | |
| Huarte Martiarena, Haitz | BAI | |
| Ibáñez Biurrun, Patricia | | |
| Ibáñez Chocarro, Ekaitz | BAI | |
| Ibáñez Villanueva, María Carmen | | |
| Idoate Ibáñez, Silvia | | |
| Ieregi Madotz, M.ª José | BAI | |
| Igarreta García, Jesús María | | |
| Irañeta Huarte, Myriam | | |
| Iriarte Verdes, Cristina | | |
| Iriarte Zenborain, Aritz | BAI | |
| Irigoyen Celayeta, Ana Idoya | BAI | |

| | | |
|---|---|---|
| Irigoyen Iribarren, Ana Belén | | |
| Irigoyen Iribarren, Arantza | | |
| Irisarri Viedma, Tamara | | |
| Iturri Zubillaga, Ainhoa | | |
| Izeta Arratxe, Nora | BAI | |
| Izquierdo Urdiain, Laura | | |
| Jáuregui Martínez de Morentin, Alberto | | |
| Jiménez Gorjón, María | | |
| Jiménez Pérez, María | | |
| Jorge Napal, Marta | | |
| Lacabe Juanmartiñena, María Victoria | | |
| Lafuente Torregrosa, Aitziber | | |
| Lainez Aguirre, María Pilar | | |
| Lainez Aguirre, Óscar | | |
| Landívar Perea, María Amaya | | |
| Lanz Armendáriz, Carla | | |
| Larramendi Peña, Víctor | | (1) |
| Larumbe Galech, Víctor | | |
| Lecumberri Zaratiegui, Egipto | | |
| Legasa Rodríguez, Laura | | |
| Leizagoyen Jericó, Maite | | |
| León López, M.ª Cristina | | |
| Liñán Tirado, Esther | | |
| Lizarraga Eraso, Carlos | | |
| Llorente Fernández, Ander | BAI | |
| López Arribas, José Ignacio | | |
| López Elía, María | | |
| López Sánchez, Carlos Javier | | |
| Lorea Ranera, Edurne | BAI | |
| Lorenzo Pacheco, María Teresa | | |
| Lumbreras Ostiz, Pello Ander | | |
| Macuso Moreno, Julia | BAI | |
| Magaña Huarte, José Manuel | | |
| Maeztu Arteaga, Ander | | (1) |
| Malo Otermin, David | | |
| Malumbres Llorente, Ana Isabel | | |
| Malumbres Madrigal, Laura | | |
| Mancho Bacaicoa, Xabier | BAI | |
| Mangado González, Argiloa | | |
| Manso Estévez, Jorge | | |
| Manzanares Bravo, María Sandra | | |
| Maquirriain Vela, Raquel | | |
| Marco Armengol, Yolanda | | |
| Marín Espadero, Natalia | | |
| Martiarena Medioroz, Oihane | BAI | |
| Martín García de Galdiano, Catalina | | |

| | | |
|---|---|---|
| Martín Vizcaíno, Ana Cristina | | |
| Martínez Asurmendi, Xabier | BAI | |
| Martínez Ballarín, Iván | | |
| Martínez Castillo, María Cristina | | |
| Martínez de Lizarrondo Jiménez, Natalia | | |
| Martínez García, Juan Ignacio | | |
| Martínez Macua, Jose Ramón | BAI | |
| Martínez Morentin, Pedro | BAI | |
| Martínez Tanco, Cristina | | |
| Martínez Zulet, Endika | BAI | |
| Matellanes Matellanes, M.ª de los Ángeles | | |
| Mateos Romero, Ana Isabel | | |
| Maya Calvo, Diego | | |
| Maya Ramos, Jaione | BAI | |
| Menchaca Barruetabeña, Nekane | | |
| Méndez Gómez, Eva | BAI | |
| Mendióroz Arce, Iranzu | | |
| Mendívil Sánchez, Zuriñe | | |
| Mendizabal Oribe, Aitor | BAI | |
| Merino Alonso, María Teresa | | |
| Merino Lorea, Iñigo | | |
| Miguel de la Cámara, Marta | | |
| Miguel Jiménez, María Paz | | |
| Mina Echarri, Sonia | | |
| Mina Zapata, Isabel | | |
| Miranda Martínez, Isabel | | |
| Mitxelena Urroz, María | BAI | |
| Molina Rodríguez, Leticia | BAI | |
| Mombo Marturet, Patricia Montserrat | | |
| Monreal Armendáriz, María Blanca | BAI | |
| Montiel Artozqui, Erlantza | BAI | |
| Morán Fernández, Sonia | | |
| Moreno Armendáriz, Marta | | |
| Moreno Casaus, Miguel Ángel | | |
| Moreno Ramos, María Cecilia | | |
| Morrás Alzugaray, David | | |
| Morrás Goñi, Roncesvalles | BAI | |
| Múgica Filgueira, Sergio | | |
| Muñoz Antonio, María Carmen | | |
| Muñoz Castellanos, Gregorio | | |
| Muñoz Peña, Borja | | |
| Murillo Zunzarren, Francisco Javier | | |
| Murugarren Rodríguez, Sara | | |
| Napal Sanz, Enrique | | |
| Napal Villanueva, Eneko | | |

| | | |
|---|---|---|
| Narváez Guergue, Luis | | |
| Nuin Moreno, David | | |
| Núñez Martínez, Olga | | |
| Núñez Rodríguez, Víctor José | BAI | |
| Ochagavía Notario, Erkuden | BAI | |
| Oiza Lesaka, Maider | BAI | |
| Olite Azcona, Mauricio | BAI | |
| Ollo Zapata, Imanol | BAI | |
| Oquiñena Loidi, María | | |
| Orduna Donázar, Nieves | | |
| Orduña Navarro, Joseba | BAI | |
| Oronoz Alfaro, Josu | BAI | |
| Ortega Nieto, Lorena | | |
| Ospina López, Adriana | | |
| Oteiza Echeverri, Irene | | |
| Ozcoidi Ancizu, Maite | BAI | |
| Palacios Guembe, Francisco Javier | | |
| Pardavila Fradejas, Inés | | |
| Pardo Agundez, Gorka | | |
| Paredes Iriarte, Naiara | BAI | |
| Parra La Haba, Roberto | | |
| Pascal Sangari, Izaskun | | |
| Pascual Bayano, Abel | | |
| Peña Martínez, María Asunción | | |
| Pérez Agúndez, Mikel | BAI | |
| Pérez Alonso, Edur | BAI | |
| Pérez Aristu, Francisco Javier | | |
| Pérez Biasi, María Laura | | |
| Pérez García, David | | |
| Pérez Larrea, Xabier | | |
| Pérez Solana, Sergio | | |
| Pérez Vallespín, Álvaro | | |
| Pisador Andrés, Marta Isabel | | |
| Pla Garde, Sara | | |
| Polo Induráin, Iñigo | | |
| Porras Morillo, Lucía | | |
| Preciado del Pozo, Jesús M.ª | | |
| Presa Gómez, María Pilar | | |
| Presencio Nagore, José Ignacio | | |
| Puértolas Mimón, María José | | |
| Puglla León, Carla Vanessa | | |
| Puglla León, Jackeline Estefanía | | |
| Quintana Eslava, Xabier | BAI | |
| Ramírez Pérez, Belén | | |
| Ranz Villarino, Silvia | | |
| Rascón Urrizalqui, Aitor | BAI | |
| Reina Otazu, Iñaki | BAI | |

| | | |
|---|---|---|
| Rejas Eseverri, Fernando Hugo | | |
| Remírez Vizcaya, Inés | | |
| Remiro Virto, Patricia | | |
| Requejo Zabalza, María Sagrario | | |
| Resano Martínez de Antoñana, Yolanda | | |
| Reta Frías, Idoya | | |
| Rico Arrastia, María Iranzu | | |
| Rodrigo Ilundain, Itziar | | |
| Rodríguez Aristu, María Nuria | | |
| Rodríguez Cantero, Isaac | | |
| Rodríguez Vázquez, Pablo | | |
| Rota Navarro, Natalia | | |
| Rubio Armendáriz, Eduardo | | |
| Ruiz Pascual, Ana Cristina | | |
| Sagaseta López, Oihane | BAI | |
| Salvatierra Moreno, Elena | | |
| Salvatierra Zubiri, Eduardo | | |
| Salvoch Baltanás, Alejandro | | |
| San Juan Laita, Jesús María | BAI | |
| San Martín Martínez, Ignacio | | |
| San Miguel Jiménez, Francisco Javier | | |
| San Miguel Jiménez, Oier | | |
| San Miguel Luquin, Alex | | |
| Sánchez Borrachero, Felicia | | |
| Sánchez Martínez, Marta | | |
| Sandúa Belzunce, Patricia | | |
| Santa Olalla Bastida, Silvia | | |
| Santamaría Baines, Gema | | |
| Sanz Zudaire, Xabier | BAI | |
| Serrano Zabalza, José Antonio | BAI | |
| Servián González, Eva María | | |
| Sobrino Larumbe, Xabier | | |
| Sola Alzueta, María Carmen | | |
| Sola Esteban, Mikel Xavier | | |
| Sola Ibarra, Noemí | | |
| Soria Martín, Christian | | |
| Sornoza Quiroz, María Ángela | | |
| Sornoza Quiroz, Narcisa Katherine | | |
| Sorroche Sibón, Inmaculada | | |
| Sorroche Sibón, Juan María | | |
| Soteras López, María Isabel | | |
| Sotés Díaz, Marcos | | |
| Sotil Beasoain de Paulorena, Elena | | |
| Subizar Oharriz, Elisa | | |
| Suñén Arandia, Ekaitz | BAI | |
| Tabar Martín, Francisco Javier | | |

| | | |
|---|---|---|
| Tamudo Marichalar, María Teresa | | |
| Tapia Bartolomé, Beatriz | BAI | |
| Telo Fernández, Yolanda | | |
| Tirapu Mendioroz, Edurne | | |
| Tirapu Sánchez, Marta | | |
| Torrens Osés, Raquel María | | |
| Tovar Ganuza, Santiago | | |
| Tranche Arrijuria, Lorena | BAI | |
| Urbano Astorquiza, Adriana | | |
| Urbiso Eraso, Cristina | | |
| Urbiso Eraso, Natalia | | |
| Uriarte Larizgoitia, Larraitz | | |
| Uriarte Sarachaga, Nekane Isabel | | |
| Urrutia Huarte, María Soledad | | |
| Valenzuela Orta, José Fernando | | |
| Vállez Pardo, Carlos | | |
| Velasco Zozaya, Imanol | BAI | |
| Velázquez Sánchez, Juan | | |
| Vera Alcalá, Sheila María | | |
| Verano Pérez, Ghislaine Mercedes | | |
| Vergara Juanco, Sayoa | BAI | |
| Verger Romero, Francisco José | | |
| Viamonte Menaza, Eva María | | |
| Viamonte Menaza, M.ª Pilar | | |
| Vidarte Usechi, Mikel | | |
| Vidaurre Azanza, Yolanda | | |
| Vidaurreta de la Cruz, Miguel | | |
| Vilches Ramírez, Beatriz | | |
| Villanueva Jiménez, Edurne | | |
| Villanueva Jiménez, Miren Garaiñe | BAI | |
| Voicu Tudor, Mircea Virgil | | |
| Vuillermoz Millán, Mario | | |
| Yagüez Sánchez, Nerea | | |
| Yanguas Forcada, Alejandro | | |
| Yoldi Oneca ,Mikel Eneko | | |
| Zabala Poceiro, Luzia | | |
| Zabalza González, Nadia | | |
| Zabalza López, Ainhoa | | |
| Zabalza Tejada, María Cristina | | |
| Zandueta Criado, Argi | BAI | |
| Zaratiegui Zabalza, María | | |
| Zazpe Oyarzun, Teresa del Carmen | | |
| Zubieta Ameztoy, Aranzazu | BAI | |
| Zudaire Aznárez, Marta | | |
| Zudaire Burgui, Ernesto | BAI | |
| Zugarrondo Goñi, Edurne | | |

(1) Ez du euskarako B2 titulua eta horren baliokide ofizialik aurkeztu –deialdiaren 3.8 oinarrian hori eskatzen da–; hortaz, ezin izanen da hizkuntza-eskakizuna eskatzen den lanpostuetarako aurkeztu.

**A.2) BAZTERTUTAKOAK (TXANDA LIBREA):**

| Izen-abizenak | Euskarako B2 eskakizuna duen lanposturako aurkezten da | Baztertzearen zergatia |
|---|---|---|
| Aguirre Echavarri, María del Carmen | | (1) |
| Aquerreta Garde, Iñaki | | (2) |
| Aragón Paternáin, Edurne | | (2) |
| Arizaleta Ardanaz, June | BAI | (1) |
| Bustillo Campillo, Lucía | | (1) (2) |
| Díez de Ulzurrun Erviti, Iciar | | (2) |
| Etxeberria García, Eneko | BAI | (1) |
| Hernández Durán, María Luz | | (1) (2) |
| Ilundain Huerga, Leyre | BAI | (2) |
| Imaz Aldasoro, María Izaskun | | (1) |
| Iribarren Murillo, Miguel Ángel | | (1) |
| Martínez Gómez, David | | (1) (2) |
| Monreal González Haizea | BAI | (1) |
| Nikitouchkina Nikitouchkina, Svetlana Nikolaievna | | (1) |
| Pastor Antón, Iván | | (2) |
| Rubio Padilla, Niuton | | (1) (2) |
| Ruiz Huelva, Sara | | (1) (2) |
| Sánchez Arboniés, Jaime | | (3) |
| Tovar Barge, Álvaro | | (2) |
| Urrizola Martínez, Patricia | | (2) |

(1) Ez du aurkeztu hilero lanbide arteko gutxieneko soldatatik goitiko errentarik ez duelako erantzukizunpeko adierazpena, II. eranskineko ereduaren araberakoa, deialdiaren 3.8 oinarrian ezartzen denaren arabera.

(2) Ez du aurkeztu enplegu-bulegoaren ziurtagiria, zeinean jasotzen baita langabe gisa izena eman zuen data eta inskribaturik egon den bitartean ez diola uko egin eskainitako inolako lan egokiri, ezta lanbide sustapen, prestakuntza edo birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikatutako kasuetan izan ezik, deialdiaren 3.8 oinarrian ezartzen denaren arabera.

(3) Ez du aurkeztu azterketa egiteko eta espedientea formalizatzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria, deialdiaren 3.8 oinarrian ezartzen denaren arabera.

**B) DESGAITASUN TXANDA**

**B.1) ONARTUTAKOAK (DESGAITASUN TXANDA):**

| Izen-abizenak | Bitartekoak egokitzea eskatu du | Euskarako B2 eskakizuna duen lanposturako aurkezten da | Oharrak |
|---|---|---|---|
| Aburuza Zubieta, Irati | | BAI | |
| Afra Linde, Sergio | | | |
| Agós Fernández, Francisco Javier | | | |
| Aguirre Ochoa, Vicente | | | |
| Alcobía Bernuy, Raquel | | | |
| Ameztoy Melón, Pablo | | | |
| Arboniés Esandi, Ander | | | |
| Armendáriz Murillo, María Pilar | | | |
| Arnaiz García, Pablo | | | |
| Asenjo Orzanco, Ainara | | BAI | |
| Asiain Bermejo, José Ignacio | | BAI | |
| Aznal Sagasti, Silvia | | | |
| Barquín Baquedano, Irkusne | | BAI | |
| Barrenetxea García, Iñaki Jon | | | |
| Bueno Gómez, Roberto | | | |
| Cenoz Marticorena, Martín Alejandro | BAI | | |
| Corral Fuentes, Miguel Ángel | | | |
| De Esteban Iracheta, M.ª Victoria | | | |
| De Esteban Iracheta, Susana | | | |
| Elcano Murillo, Izaskun | | | (1) |
| Etxeberria Elizondo, Ana María | | | |
| Fernández Gajete, Pablo | BAI | BAI | |
| Fuentes Gutiérrez, Miren Alazne | | | |
| García Berjano, Blanca | | | |
| García El Busto, Belén | BAI | | |
| García Gila, María Remedios | | | |
| García Sainz, Aimar | BAI | BAI | |
| Gironés Gaite, Yolanda | | | |
| González Gracia, Ángel Miguel | | | |
| González Martínez, Darío | | | |
| Goñi Requena, Virgilio | BAI | | |
| Hernández Rabal, Ana Isabel | | | |
| Hontañón Vélez, Raquel | | | |
| Idoate Cornago, Jon | | | |
| Iparraguirre Martija, Miguel José | BAI | | |
| Irisarri Arana, María Iranzu | | | |
| Isusi Lomas, Miren Edurne | | | |
| Iturria Marquina, Alberto | | | |
| Iturria Marquina, David | | | |
| Jorge Pérez, Javier | | | |
| Larraz Gracia, Jesús María | | | |
| Larrea Iribarren, Patxi Xabier | | BAI | |
| Legarra Buldain, Javier | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Llull Sesma, María Eugenia | BAI | | |
| López Moisés, Iris | | | |
| Mateos Martínez, María Aurora | | | |
| Peláez Larra, Juana María | | | |
| Pereda Vidal, Maider María | | | |
| Periano Idoate, Laura | | | |
| Puente Palacio, Juan Carlos | | | |
| Ramos Martínez, Ignacio | | | |
| Rodrigo Gil, María Yoana | BAI | | |
| Salinero del Hoyo, Alberto | BAI | | |
| San José González, Ana Cristina | | | |
| Sánchez Carballo, Miren Itxaso | | | |
| Santamaría Gastón, Andrés María | BAI | | |
| Sorroche Sibón, Miguel | | | |
| Tambo Cuenca, Claudia | | | |
| Tamudo Marichalar, Amaya | | | |
| Torrens Osés, Paula | | | |
| Vals Jiménez, Valentín | BAI | | |
| Vidaurre Escalera, Julio | | | |
| Vigier Castrillo, Sumi | BAI | | |
| Zabalza González, José Antonio | | BAI | |

(1) Ez du euskarako B2 titulua eta horren baliokide ofizialik aurkeztu –deialdiaren 3.8 oinarrian hori eskatzen da–; hortaz, ezin izanen da hizkuntza-eskakizuna eskatzen den lanpostuetarako aurkeztu.

**B.2) BAZTERTUTAKOAK (DESGAITASUN TXANDA):**

| Izen-abizenak | Bitartekoak egokitzea eskatu du | Euskarako B2 eskakizuna duen lanposturako aurkezten da | Baztertzearen zergatia |
|---|---|---|---|
| Duéñez Solís, Juanita | | | (1) |

(1) Ez du aurkeztu parte hartzeko eskabide-eredua, ez du aurkeztu Nortasun Agiri Nazionalaren, Atzerritarraren Identifikazio-zenbakiaren edo beste identifikazio-agiri ofizial baten kopia, ez du aurkeztu desgaitu-izaera duelako froga.

**2.** Interesdunek zilegi izanen dute ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrerako **HAMAR EGUN BALIODUN**eko epean aurkeztea egoki jotzen dituzten erreklamazioak behin-behineko zerrendaren aurka, eta, kasua bada, eginak dituzten balizko akatsak zuzentzea.

Horretarako, telematikoki aurkezten ahalko dute eskabidea. Eskabidea Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoan dago eskuragarri (https://parlamentodenavarra.es), Administrazio-izapideak / Langile-deialdietarako eskabidea atalean. Eskabidea aurrez aurre ere aurkezten ahalko da Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Orokorrean, arreta presentzialeko ordutegian (ekainaren 30era bitarte, astelehenetik ostegunera 09:00etatik 17:30era, eta ostiraletan 09:00etatik 14:30era; uztailaren 1etik aitzina, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara).

Iruñean, 2024ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950